

Deiadarra Baionan, Perpinyan...



Okzitaniako Tolosan 30.000 lagun bildu ziren okzitaniarren aldeko manifestazioan.

MARTXOAREN 31N, Baionan, inoizko *Deiadar* manifestaziorik jendetsuena egin zen. Karriketan 7.000 euskaltzale bildu ziren euskaraz bizitzeko nahia agerian uzteko eta hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko. Euskal Konfederazioak eta Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak egin zuten manifestaziorako deialdia. Baionakoa ez zen izan manifestazio bakarra. Frantziako Estatuko hainbat hizkuntza komunitatetako milaka lagun bildu ziren egun berean. Ipar Katalunian, Perpinyan, 6.000 lagun atera

ziren kalera; Britainako Kemperren 12.000; Okzitaniako Tolosan 30.000 eta Alsaziako Estrasburgon 3.000 lagun.

%12 gutxiago EEPrentzat

EUSKO JAURLARITZAK eta Euskararen Erakunde Publikoak iaz sinatu zuten sei urterako lankidetzaren hitzarmena. Aurten 457.000 euroko ekarpena egingo du Jaurlaritzak, iaz baino %12 gutxiago.

Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak adierazi duenez, krisi ekonomikoaren ondorioa da apaltzea. 370.000 euro proiektuen deialdia egiteko baliatuko dituzte eta 70.000 euro irakaskuntza elebidunerako.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Greba inoiz ez da porrota

Joan den astean Espainiako Gobernuan inposatutako lan erreformaren kontrako greba orokorra izan zen Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan. Langileen, sindikatuen eta gizartearen eskubideak murrizten ditu erreformak, enplegua are gehiago eskasten du, kaleratzeak merkatzen ditu eta emakumeak are okerrago tratatzen ditu. Erreforma, patronalaren, bankuen eta "merkatuen" zerbitzura egina dago, eta ongizate estatua desegitea du helburu, langileek euren borrokaz azken hamarkadetan lortutako ongizatea.

Testuinguru horretan, langileek eta herritarrek euren buruari galdetzen diote ea grebek, eta zehazki greba orokorrek, zerbaitetarako balio ote duten. Izan ere, erreforma inposatu duen Gobernuak adierazi du, greba orokorra eginagatik ere, ez duela bere politika aldatuko. Gainera, sistema kapitalista bere bozeramaile mediatikoekin saiateri ari da herritarrek euren aldarrikapenak eta mobilizazioak lagatzea: "Ez baitute ezertarako balio izan, egun bateko soldata galtzeko izan ezik".

Baina grebak eta herritarren mobilizazioak inoiz ez dira porrota, helburuak berehalakoan lortzen ez badira ere. Arrazoi nahikoa egonik greba eta mobilizaziorako, hura egiteko deialdia eta parte hartzea —Euskal Herrian oso inportantea—, guztiok bilatzen dugun gizarte berri baten funtsezko baloreen erakusgarri dira: justizia sentimendua, elkartasuna, gizartearen parte hartze aktiboa, eta batez ere, esplotazio politiko, ekonomiko eta sozialaren aurrean duintasuna erakustea. Historian, izan dira gobernuak bota dituzten greba orokorrak. Eta izan dira euren helburuak lortu dituzten greba orokorrak. Oraingo honetan, agian ez dira helburuak epe motzean lortuko, baina milaka lagunek erreformari aurre egin izana ez da inoiz porrota izango. Duintasunaren garaipena izan da. Eta aurre egiten jarraitu beharko dugu. Irnatasunez!

Juan Mari Arregi



BAHEA

Mikel Irizar Topaguneko lehendakari berriak Berrian esanak: "[Euskarara elkarteez galdetuta] Herri mugimendua ahuldu egin da. Lozorroan egon gara. Erakundeen esku utzi dugu hizkuntza politika egiteko eta normalizazioa sustatzeko ekimena. Herri ekimen hori berreskuratu behar da; gainontzean, lortu genituen gauzetako batzuk galtzeko arriskua dago. Hor lan handia dugu egiteko. Topagunak azken urteetan egindako hausnarketa bide horretatik doa. Euskara elkarteek akuilu izan behar dute berriro ere euskararen zabaltzean eta normalizazioan. Gizarteak berriro mobilizatu behar du, eta norbanako gisa euskaldun izateko konpromiso hori indartu, handitu. Emozioetan eta jarreretan eragin behar dugu. Beharrezkoa da baita ere euskararen inguruan diskurtso modernoak eraikitzea; ez bakarrik historiaren eta eskubideen ikuspegitik. Ekologiaren eta berdintasunaren alorra ere landu behar da. Asko begiratu behar diogu feminismoari, adibidez. Jabekuntzatik hainbat egoera iraultzea lortu dute".